

EXFIBAR 2017

XLVIII Seilu erakusketa
XLVIII Exposición Filatélica



EIBAR





ASOCIACION FILATELICA ARRATE ARRATE FILATELDI ELKARTEA

Email: isidrorejo@gmail.com
Apartado, 33
20600 **EIBAR** (Gipuzkoa)

BATZORDE ANTOLATZAILEA • COMISIÓN ORGANIZADORA

PRESIDENTE / PRESIDENTEA :

Isidro Rejo Lorenzo

SECRETARIO / IDAZKARIA:

Juan Gómez Barranco

TESORERO/ DIRUZAINA :

Alberto Elizondo Retolaza

2017ko azaroaren **26**tik abenduaren **3**ra

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 18:00-20:00

Larunbata eta igandea: 12:00-14:00, 18:00-20:00

Azaroaren 30ean itxita

del **26** de noviembre al **3** de diciembre del 2017

Horario:

De lunes a viernes: 18:00-20:00

Sábado y domingo: 12:00-14:00, 18:00-20:00

Día 30 de noviembre cerrado

ZIGILU PERTSONALIZATUAREN EGILEA MATASELLO Y SELLO PERSONALIZADO

Diseñado por:
Isidro Rejo



Zigilu ordutegia
Horario del matasellos
Día 26: 11:00-14:00h.





XIX. mendean, armagileek kalitate-zigilu baten beharra antzeman zuten, beren armen kalitatearen adierazgarri izan zedin Europan, eta Espainiako Gobernuari hitzarmena eskatzeko eskaria egin zioten: suzko arma eramangarrietarako probako puntzoiak elkarren onarpenerako hitzarmena (CIP hitzarmena, Convenio para el Reconocimiento Recíproco de los Punzones de Prueba de Armas de Fuego Portátiles).

Nazioarteko hitzarmen horren haritik, armen probalekuei buruzko legea idatzi zen 1915ean; eta harrez geroztik, debekatuta geratu zen armak Espainia barruan zein kanpora saltzea, probalekuan derrigorrezko proba gainditu ezean. Probalekuen egitekoa da armak seguruak direla bermatzea eta arma-fabriken sinesgarritasunari eustea.

Garai hartako industria-gizonak berehala ekin zioten Eibarren armentzako probalekua eraikitzeari, Untzaga pla-

A principios del siglo XIX el gremio armero se ve en la necesidad de dotar a sus armas de un marchio de calidad reconocido en Europa e insta al Gobierno español a suscribir el Convenio para el Reconocimiento Recíproco de los Punzones de Prueba de Armas de Fuego Portátiles (Convenio CIP).

A raíz de la firma de este Convenio Internacional, se promulga en 1915 la Ley de Creación de los Bancos de Pruebas y, a partir de este momento, no podrán venderse en España ni exportarse al extranjero armas que no hayan superado una prueba obligatoria en el Banco de Pruebas. Los bancos de pruebas tendrán el fin de garantizar la seguridad en el uso de las armas y mantener el crédito de sus fábricas.

Los industriales de la época procedieron inmediatamente a la construcción del Banco de Pruebas de Éibar, junto a la Plaza de Unzaga, con el doble fin de garantizar la seguridad en el uso de las armas y de mantener el crédito de las fábricas.



Foto cedida por Maxan

zaren ondoan, armak seguruak zirela bermatzeko eta armagileen sinesgarritasunari eusteko.

Proba-tokia eraikitzeko helburuarekin, arma-industriak antolatu eta elkartu egin ziren eta **Cámara Oficial Armera (Armagileen Ganbera Ofiziala)** sortu zuten, gero **Asociación Armera (Armagileen elkarte)** bihurtu zena.

1967an, eta garaian sortu ziren erronkei aurre egiteko asmoz, suzko arma luzeak eta motzak eta haien osagaiak egiten zituzten 65 enpresek erabaki zuten sektorearen konfederazio nagusia sortzea. Handik gutxira, kartutxo-fabrikatzaileak ere sartu ziren konfederazioan eta orduan sortu zen **Asociación Armera**; egoitza Eibarko Untzaga plazan zuen.

Con ese fin, la construcción del Banco de Pruebas, la industria se organizó y agrupó fundando la **Cámara Oficial Armera**, germen de lo que algunos años después sería la **Asociación Armera**.

Ya en 1967, y ante la aparición de nuevos retos que es necesario afrontar, 65 empresas fabricantes de armas de fuego cortas y largas y componentes de las mismas deciden crear una gran confederación sectorial, que pronto incluiría también a fabricantes de cartuchería, dando lugar al nacimiento de la **Asociación Armera** cuya sede se establece en la Plaza de Untzaga de Éibar.

Los fundadores, que en el momento generaban un empleo directo de 3.000 trabajadores y uno indirecto de



Feria IWA 2002 (Alemania) 25 años de participación de la Asociación Armera.

Elkarteko sortzaileek 5.000 lanpostu sortzen zituzten, 3.000 zuzen eta 2.000 zeharkako, autonomoentzat; eta 450.000 arma inguru egiten zituzten urtean. Hala ere, sektoreak zituen arazo larriei aurre egin behar izan zieten guztiek batera: merkatua ordenatu eta esportatzeko gutxieneko prezioak ezarri; pezetaren etengabeko devaluazioari eutsi; erantzukizun zibila zelata, AEBetatik jasotzen zituzten milioien salaketei aurre egin; langileak trebatu, pieza txikiak normalizatu, armei buruzko araudi gero eta zorrotzagoetara egokitu; kanoiak egiteko altzairuek kalitate eskasarekin lan egin, bezeroek oso berandu ordaintzen bazuten ere, jarraitu, eta abar.

2.000 autónomos y fabricaban en torno a 450.000 armas al año, deciden hacer un frente común para la resolución de los severos problemas que acucian al sector: la necesidad de ordenar el mercado y fijar precios mínimos a la exportación, la continua devaluación de la peseta, las demandas millonarias de responsabilidad civil en EEUU, la formación de trabajadores, la normalización de piecerío, normativas cada vez más restrictivas sobre armas, problemas de calidad de los aceros de los cañones, la abultada morosidad, etc.

Firman las primeras escrituras de constitución de la Asociación Armera las

Enpresa hauek sinatu zituzten Asociación Armeraren sortze-ekriturak: Aguirre y Aranzabal S.R.C., Martín Amuategui, Francisco Anitua, Hermanos Aramberri S.R.C., Javier Arana Alberdi, Gaspar Arizaga, Armas Ego, Armas El Corzo, Armas Garbi, Armas Ilja, Armas Marixa, Armería Parkemi, Luis Arrizabalaga, Pedro Arrizabalaga, Ayra Durex, Juan Antonio Belategui, Eugenio Bilbatua, Comercial Vasco Armera, Crucelegui Hermanos S.R.C., C. y T. Bascaran, Jose María Chopitea, Pedro Gorosabel, Hijos de F. Arizaga, Hijos de V. Aramberri y Cía. S.R.C., Hijo de J. Muguruza, Antonio Ibeas Rosuero, Laurona Armas S.A., Antonio Madariaga Urquidi, Manufacturas JCM-J.C.M.

siguientes empresas: Aguirre y Aranzabal S.R.C., Martín Amuategui, Francisco Anitua, Hermanos Aramberri S.R.C., Javier Arana Alberdi, Gaspar Arizaga, Armas Ego, Armas El Corzo, Armas Garbi, Armas Ilja, Armas Marixa, Armería Parkemi, Luis Arrizabalaga, Pedro Arrizabalaga, Ayra Durex, Juan Antonio Belategui, Eugenio Bilbatua, Comercial Vasco Armera, Crucelegui Hermanos S.R.C., C. y T. Bascaran, Jose María Chopitea, Pedro Gorosabel, Hijos de F. Arizaga, Hijos de V. Aramberri y Cía. S.R.C., Hijo de J. Muguruza, Antonio Ibeas Rosuero, Laurona Armas S.A., Antonio Madariaga Urquidi, Manufacturas JCM-J.C.M. suc., Antonio Marcos





Foto cedida por Maxan

suc., Antonio Marcos Ralea, Mendi S.C.I., Norberto Arizmendi, S.A., Adolfo Sarasqueta, Star-Bonifacio Echevarria S.A., Suc. de E. Guisasola, Suc. de Viuda e Hijos de J. Fernandez, Trust Eibarrés, Martín Ugarteburu, Ignacio Ugartechea, Unión Armera S.L., José Urigüen, Victor Sarasqueta S.A., Vda. e Hijos de J.J. Sarasqueta, Zamacola Hermanos S.R.C., Juan Zubiaurre Arrizabalaga, Ignacio Zubillaga, Armas Gib Máximo Bolinaga, Zabala Hermanos S.R.C., Armas Erbi S.C.I., Armas Urbiola, Pedro Arosa Aguirre, Manufacturas Arrieta, Francisco Sarriugarte, Felix Sarasqueta y Cía. S.A., Miguel Larrañaga, Suc. de Eusebio Arizaga S.R.C., Industrias Danok, Astra Unceta y Cía. S.A., Carrero y Astelarra S.L., G. Zabala y Cía. S.A.,

Ralea, Mendi S.C.I., Norberto Arizmendi, S.A., Adolfo Sarasqueta, Star-Bonifacio Echevarria S.A., Suc. de E. Guisasola, Suc. de Viuda e Hijos de J. Fernandez, Trust Eibarrés, Martín Ugarteburu, Ignacio Ugartechea, Unión Armera S.L., José Urigüen, Victor Sarasqueta S.A., Vda. e Hijos de J.J. Sarasqueta, Zamacola Hermanos S.R.C., Juan Zubiaurre Arrizabalaga, Ignacio Zubillaga, Armas Gib Máximo Bolinaga, Zabala Hermanos S.R.C., Armas Erbi S.C.I., Armas Urbiola, Pedro Arosa Aguirre, Manufacturas Arrieta, Francisco Sarriugarte, Felix Sarasqueta y Cía. S.A., Miguel Larrañaga, Suc. de Eusebio Arizaga S.R.C., Industrias Danok, Astra Unceta y Cía. S.A., Carrero y Astelarra S.L., G. Zabala y Cía. S.A., Ascensio Zabala, Garate y Mendibe S.A., Hijos de Orbea



Ascensio Zabala, Garate y Mendibe S.A., Hijos de Orbea S.A., Llama-Gabilondo y Cía. S.A., Unión Explosivos Rio Tinto S.A.

Garai hartako industriak eta armagintzaren sektoreak zituzten arazoak antzekoak ziren, baina batzuk armen produkzioak berak eragiten zituenak ziren bakarrik, legeak zailtasun ugari eragiten baitzituen sektorea aurrera ateratzeko.

Hartara, Asociación Armerak hainbat frontiari ekin zion:

S.A., Llama-Gabilondo y Cía. S.A., Unión Explosivos Rio Tinto S.A.

Los problemas que preocupan al sector armero y que llevan a la creación de un frente común para su resolución son en parte similares a los que afectan a la industria de la época, pero en parte propios de la idiosincrasia especial del producto, las armas, con una legislación muy poco favorable a cualquier desarrollo de este sector.

Así la Asociación Armera comienza sus gestiones en varios frentes:



- Merkatua arrazionalizatzeko asmoz, **gutxieneko prezioak ezarri zituzten merkatu nazionalerako eta esportaziorako**, eta bere hartan iraun zuten Espainia merkatu erki-dean sartu zen arte.

Baina gutxieneko prezioek arazoak eragiten zituzten etengabe, hainbat arrazoiengatik:

Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak goraka zihoazen atsedenek gabe, langileek lansari altuagoak eskatzen zituzten, lehengaiak gero eta garestiagoak ziren, dolarra indarra galtzen ari zen, Espainiarekin lehia ari ziren herrialdeetan etengabe devaluatzen zuten moneta (Italia, Brasil, etab.). Halako baldintzetan ezinezkoa zen urte oso baterako hitzartutako gutxieneko prezioei urte osoan eustea eta aldiro batzartu behar izaten ziren Industria Ministerioarekin, konponbide bat bilatzeko.

- En un intento de racionalizar el mercado, se establecen **precios mínimos para el mercado nacional y para la exportación**, los cuales se mantienen hasta la entrada de España en el Mercado Común.

Sin embargo, el establecimiento de precios mínimos es fuente de continuo conflicto. Cuestiones como el incremento galopante de los pagos a la Seguridad Social, las reivindicaciones laborales por el aumento de salarios, el aumento del coste de las materias primas, la devaluación del dólar, la devaluación de las monedas de los países competidores de España (Italia, Brasil, etc.) hacían imposible el mantenimiento de los precios mínimos pactados durante todo un año y provocaban la celebración de continuas asambleas extraordinarias y reuniones con el Ministerio de Industria para dar una solución al problema.



Gainera, produkzio-prezioen gorakadez gain, beste arazo bat gehitu zitzaion sektoreari: beste monetekin alderatuta, balio irreal ematen zioten pezetari. Gauzak horrela, EAEko industria sektoreek bat egin zuten eta batzar erraldoia antolatu zuten Bilbon. 1.500 enpresaburu baino gehiago bildu ziren, eta lehendakari-tza-taldean Barahona jauna zegoen, arma sektorearen ordezkaria. Bilera hartatik oinarritzko bi eskari egin zizkieten Administrazioari: pezeta benetako balioetan kotizatzea eta esportazio-salmentei zergak arintzea.

Al problema de las continuas subidas de precios de fabricación que sufre la industria se une otro, el de la valoración irreal de la peseta con respecto a otras monedas. Los diferentes sectores industriales en el País Vasco se agrupan para denunciar el problema y buscar soluciones organizando una macro reunión en Bilbao a la que asisten más de 1.500 empresarios y en cuya presidencia está el Sr. Barahona, en representación del sector armero. Se pide de la Administración una reacción en dos frentes fundamentales: la cotización real de la peseta y la actualización de la desgravación fiscal a la exportación.



Foto cedida por Maxan

- Eskopetak egiten espezializatuta zeuden beharginak kontratatzea betiereko eztabaidagai zen, eta Asociación Armerak etengabe jasotzen zituen salaketak, enpresek elkarri lapurtzen zizkiotelako espezialistak.

Arazo hori konpontzeko, **armagintzarako lehen prestakuntza-ikastaroa** jarri zuten martxan 1970ean, Eibarko Armeria Eskolan. 25 ikasle hasi ziren, eta arma-maisua espezialitatea Lanbide Heziketa Intentsiboaren izendegian sartu zuten. Ikastaroa Lan Ministerioak ordaindu zuen, oso-osorik.

- El reclutamiento de trabajadores especializados en la fabricación de escopetas ha sido siempre un caballo de batalla para la industria armera y eran continuas las denuncias interpuestas ante la Asociación Armera por el “robo” de especialistas entre empresas.

Para dar solución a este problema, en 1970, se pone en marcha el primer **curso de formación de armería** en la Escuela de Armería de Eibar con 25 aprendices. Se incluye en el nomenclátor de la Formación Intensiva Profesional (F.I.P.) la especialidad de maestro armero y el curso es financiado en su totalidad por el Ministerio de Trabajo.



Ikastaroa bi urtekoa zen eta helburu nagusi zuen baskulaginak ondo prestatzea. Baina lehen ikastaroa amaitu zenean, Armeria Eskolak jakinarazi zuen ezin zuela harekin jarraitu, finantzazio falta zuelako.

Orduan, prestakuntza enpresen kargu geratu zen berriz ere, eta aprendizaren postua baliatu zuten beharginak trebatzeko. Baina gero, aldaketak egon ziren legean, eta prestakuntza eman ahal izateko, lan-kontratu bat sinatu behar zuten enpresek beharginekin; ondorioz, berriz zaildu ziren kontuak. Kontratu batek eragiten zituen kostuak alde batetik, eta eskopeta bat artisauroan egiteko beharginak hartu behar zuen prestakuntza-dentzora bestetik, prestakuntza erabat

La duración del curso es de dos años y se centra en el estudio de la fabricación de báscula y ajuste. Sin embargo, al término del primer curso la Escuela de Armería comunicó su imposibilidad de continuar con los cursos por falta de financiación.

La formación vuelve entonces a las empresas las cuales se ven obligadas a llevar a cabo las tareas de enseñanza a través de sus propios medios mediante la figura del aprendiz. Sin embargo, modificaciones posteriores de la legislación laboral prohíben impartir formación por las empresas si no es mediante un contrato laboral y los costes derivados de estos unidos a lo prolongado de los periodos de formación requeridos para el tra-

alboratu zuten enpresek edo oso-oso gutxitan egiten zuten.

Belaunaldi-erreleboa ezin ziurtatuta eta espezialistei ezagutzak ezin transmitituta, armagintza-sektoreak egiteko latza zuen martxan jarraituko bazuen.

1999an, baina, laguntza eskatu zieten erakundeei; bidegabeba zen industriako beste sektoreek eskola profesionaletan prestatutako espezialistak jasotzea eta armagintzak bere beharginak propio prestatu behar izatea.

INEMek eta Eibarko Udalak, Tailer-eskolaren bitartez, egoeraren berri jaso zuten eta prestakuntza-programak bideratzeko finantzazioa eman

bajo en la escopeta artesanal llevan a las empresas a tener que abandonar la formación o reducirla a mínimos.

La imposibilidad de garantizar el relevo generacional y de transmitir el conocimiento de los especialistas es un reto a resolver si el sector armero quiere garantizar su continuidad.

No sería hasta el año 1999 que el sector demanda ayuda institucional para abordar el problema de la formación. No parece justo que otros sectores de la industria dispongan de especialistas formados en escuelas profesionales con cargo a presupuestos generales y el sector armero tenga que asumir el coste íntegro de la formación de sus operarios.





zuten. Programa haiei esker, dozena-ka ikasle prestatu eta enpresetara bidali zituzten.

- Armen sektoreak gero eta produkzio gehiago zuen eta horiek non saldu topatzea betiereko buruko mina zen. Horregatik, merkaturatze-planak eta nazioarteko azoketan parte hartzeko bidea zabaltzea izan dira beti fabrikatzaileek gehien eskatu dituzten zerbitzuak.

Asociación Armerak enpresen eta produktuen katalogoa prestatu eta milaka ale banatu zituen munduan. Espainiako armagintza-industria munduko azoka nagusietan parte hartzen hasi zen eta salmenta ugari lortu zituen; ondorioz, Espainian

El INEM y el Ayuntamiento de Éibar, a través de su Escuela Taller, se hacen eco del problema y colaboran en la financiación de los planes formativos por los cuales pasarían decenas de alumnos, que se incorporarían posteriormente a las empresas.

- La necesidad de **ampliar mercados** donde colocar la creciente producción de armas ha sido siempre una constante en el sector armero y la organización de misiones comerciales y participación en ferias internacionales una de las actividades más demandadas por los fabricantes.

La Asociación Armera edita un catá-



egindako armak berehala sartu ziren munduko arma-merkatu nagusietan. 1977 urterako, arma-produkzioaren % 40 esportatu egiten zuten, eta kopurua handituz joan da urteekin. Egun % 90 esportatzen da.

- Asociación Armerarekin lotura zuten fabrikatzaileek behar bereziak antzeman zituzten: **Europako fabrikatzaileekin itunak lortzea** eta guztien interesak babestea. Orduan, CEFAC (Arma Fabrikatzaileen Europako Batzordea) sortu zuten, egun IEACS (Arma Fabrikatzaileen Europako Institutua) dena. Espainiako armagileak izan ziren

logo de empresas y productos y distribuye miles de ejemplares por todo el mundo. La industria armera española participa en las principales ferias internacionales y realiza numerosas misiones comerciales, fruto de las cuales es la rápida penetración de las armas españolas en los principales mercados del mundo. Para el año 1977 el porcentaje de exportaciones del sector armero con respecto a la facturación total era ya del 40% y ha ido aumentando hasta situarse en la actualidad en el 90%.

- Los fabricantes españoles reunidos en torno a la Asociación Armera pronto ven la necesidad de constituir **alianzas con otros fabricantes europeos** para la defensa de sus intereses comunes y crean la CEFAC (Comité



Foto cedida por Aguirre y Aranzábal

lehenak Espainiaren merkatua kanpora irekitzen. Paradoxa bada ere, garai batean, Espainia merkatu erki-dean sartu gabe zegoenean, bazen Espainiako enpresaburuen elkarte bat (Asociación Armera) Europako Batasuneko erakunde bat zuzentzen.

- Baziren bestelako zailtasunak elkartearentzat: **armen inguruko legea gero eta hertsia**goa zen. 1972an, Barne Arazoetako Ministerioak arma-fabrikek bete beharreko segurtasun-neurriak zorroztu zituen eta obrak egitera behartu zituen fabrikak. Bi urteko tarte laburraren buruan, berriz gogortu zituen segurtasun-betekizunak: arma laburrak, errifleak eta kartutxoak egiten zituzten enpresetan segurtasun-jagoleak nahitaez eduki

Europeo de Fabricantes de Armas), actual IEACS (Instituto Europeo de Fabricantes de Armas).

Los industriales armeros españoles encabezan la apertura de España al exterior y durante algunos años se dio la paradójica situación de que una asociación de empresarios españoles (la Asociación Armera) presidía una organización perteneciente a la Unión Europea cuando España ni siquiera formaba parte del mercado común.

- La cada vez más **restrictiva legislación sobre armas** es otro de las constantes dificultades de la Asociación Armera. En 1972 el Ministerio del Interior comienza a endurecer las medidas de seguridad

behar zituzten, une oro.


1981ean, armei buruzko erregelamendua berritu zuten. Neurri berriek muga gehiago ezarri zizkion armagintzaren industriari, eta muga horiek gehiago estutu zuten jada egoera zaila zena: orduko ekonomia-atzeraldiaren egoera latza hain zuzen ere.

Elkarteko lehendakariak salaketa egin zuen Barne Arazoetako eta Industria ministerioen aurrean. Haren esanetan, araudi berriak gehiago zuen kirol-armak edukitzea eta ibiltzea mugatzeko filosofiatik armen kontrolaren eta merkatuak behar zuen mugitzeko arintasunaren arteko oreka-puntutik baino; gainera, Espainiako armagintza askoz

en las fábricas obligando a realizar obras en las mismas y sólo dos años después modifica nuevamente los dispositivos de seguridad e impone la obligatoriedad de contar con vigilantes de seguridad permanentes en fábricas de arma corta, rifle y cartuchos.

Nuevamente en 1981 se reforma el Reglamento de Armas y el tratamiento cada vez más restrictivo sobre las armas genera graves problemas a la industria armera y más en un momento de profunda recesión como el que se vive.

El Presidente de la Asociación Armera denuncia, ante los Ministerios de Interior e Industria, que este nuevo reglamento se basa





egoera okerragoan lagatzen zuen, nazioarteko lehiakideekin alderatuz gero.

Erabiltzaile, ehiztari eta tirolariek gutxika-gutxika eskubideak galtzen zituztela ikusi zuten. 1985ean, 2283 Errege Dekretua argitaratu zuten, arma-baimena eskuratu nahi duten herritarrek bete behar dituzten baldintza psikofisikoen ingurukoa. Eta horrek ere kalte gehiago ekarri zion sektoreari, arma-baimenak % 46 jaitsi baitziren.

Bestalde, Guardia Zibilak gero eta enkante gehiago egiten zituen, eta 1985ean, gehiago ziren Guardia Zibilak enkantera ateratako armak industriak sortzen zituenak baino. Estatua zen Espainiako armategi handiena: atzemandako armak eta komandantzian ehiztariek entregatutakoak merkaturatzen zituzten, eta horrek konpetentzia handia egiten zien industriari eta handizkako saltzaileei. Konkurrentzia bidegabea zen eta industria ito egiten zuen. 1993an, berriz ere aldatu zuten armei

más en una filosofía restrictiva respecto a la tenencia y circulación de armas deportivas que en una posición de equilibrio entre el necesario control y seguridad sobre las armas y la agilidad que el comercio y la industria armera precisan para mantenerse como tales y coloca a la industria armera española en una situación de grave desventaja con respecto a los competidores internacionales.

Los usuarios, cazadores y tiradores,



ven progresivamente menguados sus derechos y en noviembre de 1985 se publica el Real Decreto nº 2283 que regula las aptitudes psicofísicas que deben reunir los individuos que quieran obtener el permiso de armas agravando los problemas del sector ya que la concesión de permisos de armas disminuye un 46%.

Por otra parte el recurrente problema de las subastas de armas que la Guardia Civil celebra va en aumento y para 1985 el número de armas que la Guardia Civil subasta supera ya a




buruzko erregelamendua, eta beste estualdi bat izan zuen: armak garraiatzeko baldintzak horren zorrotz bihurtu ziren, ezen armategi batzuek asteak pasatzen zituzten sal-gairik gabe. Espainiako arma-legea Europako hertsiena zen: fabrikatzaileak eta erabiltzaileak kriminalen pare jartzen zituen eta industria erabat ihartu zuten; hainbat enpresak negozioa itxi egin behar izan zuten.

- 70eko hamarkadan, arma laburrak egiten zituztenek, *Astra* y *Unceta*, *Llama Gabilondo* eta *Star*, 190.000 unitate inguru egiten zituzten; gehienak pistolak ziren, baina baziren errebol-berrak eta subfusilak ere.

Eta hiru enpresa horiek 90eko

las que la industria fabrica. El Estado se convierte en la mayor armería de España compitiendo en el mercado con fabricantes, mayoristas y armerías con armas provenientes de incautaciones y de cazadores que las entregan en las Comandancias. Es una competencia injusta y desleal que ahoga la industria.

En 1993 se modifica nuevamente el Reglamento de Armas y la legislación sobre armas sufre una nueva vuelta de tuerca, se endurecen las medidas de seguridad en el transporte llegándose a paralizar durante semanas todo suministro a las armerías. La legislación sobre armas deportivas en España es la más restrictiva de Europa, criminaliza a



Pistola marca STAR

hamarkadan itxi ziren, hiru arrazoi nagusirengatik. Bat, denbora-tarte luzez Espainiako erakundeek ez zuten hornigairik eskatu; bi, herrialde askotan legeak aldatu eta bertako arma-merkatuak itxi ziren; eta hiru, Espainiako parlamentuak armen esportazioaren gaineko kontrola ezarri ostean, Espainiak berak mugak jartzen zituen armak zenbait herrialdetara esportatzeko.

- 1975ean, ekonomia-krisi sakona zegoen, eta egitura goitik behera aldatzeko iritziak indartzen hasi ziren. Horixe izan zen 1981ean egin zen **armagintza-sektorea berregituratzeko** abiapuntua.

fabricantes y usuarios y asfixia a la industria provocando el cierre de numerosas empresas.

- En los años 70 los tres fabricantes de arma corta, Astra y Unceta, Llama Gabilondo y Star, llegaron a fabricar una media de 190.000 armas al año, pistolas en su mayoría aunque también revólveres y subfusiles.

Fueron fundamentalmente tres circunstancias las que condujeron al cierre de las tres empresas en la década de los 90: la suspensión de las abastecimientos institucionales en España durante un largo período de tiempo, el cierre de muchos de los tradicionales mercados internacionales por cambios legislativos en numerosos países y, tras la instauración del control parlamentario en



Arrazoi pisudunak zeuden berregituraketa justifikatzeko:

- Goizetik gauera, kanoi bakarrek eskopeta paraleloa eskatzeari utzi zioten bezeroek, bai bertako merkatuan baita nazioartean ere. Orduetik aurrera, erdiautomatikoak eskatzen hasi ziren, gero eta gehiago.

- Ameriketako merkaturak galdu zen: 19 milioi lizentzia.

- Espainia merkatu erkidean sartzeaz zegoenez, merkatuaren neurri protekzionistak desagerrarazi zituzten eta esportatzeko arma-kopurua bertan behera geratu zen.

- Arma-produkzioak erabateko jaitziera izan zuen, eta ezinezkoa zen lanpostuei eustea sektorea berregituratu gabe.

España, las limitaciones impuestas por España a la exportación a determinados destinos.

- En el año 1975, y con una fuerte crisis económica de trasfondo, empiezan a surgir voces que abogan por abordar una serie de cambios estructurales. Es el punto de partida de la **reestructuración del sector armero** que comienza en 1981.

Hay razones de peso que justifican el planteamiento de reorganización:

- La demanda de escopeta paralela y de un cañón cae drásticamente tanto a nivel nacional como internacional para dejar paso a la cada vez más demandada semiautomática.

- Se pierde el mercado americano con 17 millones de licencias.



- Merkataritza-marjinak jaitsi ziren; tiro bakarreko eskopeta paraleloa jada ez zen errentagarria.

- Enpresen minifundismoa gehiegizkoa zen: enpresa txiki asko zegoen eta ez zuten nahikoa neurri errentagarri izateko.

- Armak egiteko makinak zaharkituta zeuden, salbuespen gutxi batzuk izan ezik.

- Ia ez zegoen talde teknikorik produktu berriak asmatzeko. Aurrerapen tekniko guztiak produkzioan egiten zituzten: produktibitatea eta prozesuak handitu, piezak hobetu, etab. Industriak ez zuten gaitasunik arma mota berriak sortzeko edo berrikuntza sendoak zituzten produktuak aurkezteko.

- Ante la inminente entrada de España en el Mercado Común desaparecen las medidas proteccionistas del mercado y se eliminan los contingentes de armas a la importación.

- La producción de armas desciende drásticamente y es imposible mantener los puestos de trabajo si el sector no se reestructura.

- Descienden los márgenes comerciales, la escopeta paralela y de un tiro ya no son rentables.

- Hay un excesivo minifundismo empresarial, hay un exceso de firmas que no tiene la dimensión mínima para ser rentables.

- El parque de maquinaria, salvo en escasas excepciones, se ha quedado anticuado.



Foto cedida por Armas Gabi

- Industriak artisautza izaera markatua zuen. Behargin batek ez zuen 1.500.000 milioi pezeta baino gehiago produzitzen urtean, eta, batez beste, 950.000 pezetako gastua eragiten zuten. Gainera, sektorearen integrazio-tasa oso baxua zen: hiru laurdenek (% 76) zuten integrazio-tasa % 25 baino baxuagoa zen eta enpresen % 36k muntaketa lanak baino ez zituzten egiten.

Goiko puntuetako egoera horiek guztiek, kostuen igoerak, nazioarteko lehiakide berriak sortzeak eta ehiza-arau gero eta zorrotzagoek, guztiek batera, kinka larrian jarri zuten sektorea.

- Apenas existen equipos técnicos orientados al desarrollo del producto, los escasos avances técnicos se orientan hacia la mejora en la productividad, procesos, concepción de las piezas, etc. La industria es incapaz de crear nuevos tipos de armas, introducir innovaciones sustanciales en los productos, etc.

- Carácter excesivamente artesano de la industria. La facturación media por operario no superaba el 1.500.000 pesetas, el coste anual medio era de 950.000 pesetas y la tasa de integración media en las empresas del sector era bajísima (el 76% de las empresas tenían una tasa de integración inferior al 25% y el 36% de las empresas tan solo realizaban tareas de montaje).



Orduan, elkarte bateratua sortu zen, DIARM. Elkarte berriaren helburua zen industriaren berregituraketa bideratzea, eta hainbat mugarri ezarri zituzten horretarako: produkzioa planta bakarrean zentralizatu, modelo-kopurua murriztu (paralela bi, gainjarritako bi, erdiautomatiko bat eta tiro bakarreko eskopeta bat), eta kanoi bakarra sortu modelo guztientzat.

Eskopeta-fabrikatzaileetatik, 60tik 39 sartu ziren proiektuan, urtean 100.000 arma egiteko asmoz.

Todas estas circunstancias, unidas a los incrementos de costes, aparición de nueva competencia internacional y normativas de caza cada vez más restrictivas colocan al sector en una situación crítica.

Se crea una sociedad conjunta, DIARM, destinada a conducir y desarrollar el proceso de reestructuración con el objetivo último de centralizar la producción en una única planta, reducir el número de modelos (dos modelos de paralela, dos modelos de superpuesta, un modelo de semiautomática y un modelo de escopeta de un tiro) y fabricar un cañón único para todos los modelos.



GRABADO DE VICENTE ALBERDI

Eskopeta paralelo fina egiten zutenek ez zuten beren marka-izenei agur esan nahi, etxean eta atzerrian prestigio handikoak zirelako, eta hari uko eginda aktibo oso baliagarria galduko zutelako. Gainera, fabrikatzaile horiek eskaera ugari eta finantza-egoera erosoak zuten; beraz, ez ziren berregituraketan sartu. Karabina, arma laburra eta aurrekargako armak egiten zituzten azpisektoreak egoera ekonomiko hobean zebiltzan eta guztiz bestelako arazoak eta produkzioak zituzten, eta horiek ere ez ziren bateratzean sartu.

De los 60 fabricantes de escopeta, 39 entraron en el proyecto con el objetivo de fabricar 100.000 armas al año. Los fabricantes de escopeta fina paralela son reacios a abandonar sus marcas, las cuales gozan de gran prestigio a nivel nacional e internacional, pues consideran sería malgastar un activo muy valioso. Además su cartera de pedidos y su situación financiera es holgada, por lo que no entran en la reestructuración. Los subsectores de la carabina, arma corta y avancarga, en la medida en que se sitúan en niveles más

1984ko amaierarako planta berria martxan zegoen, Itziarren. Bi urte geroago itxi zuten, eta likidatu egin zuten.

Bat-egiteak kale egin zuen arren, berrantolaketa erabateko arrakasta izan zen. Lehiakor ez ziren enpresak desagertu ziren, eta testuinguru berria azaldu zen armagintzaren sektorean: industria modernoa, espezializazio maila altuarekin eta eskaera berriekin bat zetozen produktu-eskaintza zuena.

Armagintza-sektoreak bere burua berriro asmatu du: teknologia berriak produkzioan txertatu ditu eta bezeroek egiten dituzten eskaerak etengabe egokitu da.

saneados y son fruto de una problemática muy diferenciada, tampoco entran en el proceso.

Para finales de 1984 la nueva planta, situada en Iciar, ya está en funcionamiento. Dos años después cerraría y comenzaría su liquidación.

Si bien el objetivo de la fusión fue un fracaso, el reto de la reorganización del sector fue un éxito. Desaparecieron aquellas empresas que habían dejado de ser competitivas para dar paso a un nuevo panorama con una industria armera moderna, con un alto grado de especialización y una gama de productos acomodados a la nueva demanda.

El sector armero ha sabido reinventarse, incorporar las nuevas tecnologías a la producción y adaptarse a las



Foto cedida por AYA



Eraldaketa munduan bizi gara, non produkzio-zentroak eskulan merkea dagoen herrialdeetara eramaten dituzten. Baina armagileen industriak jakin du Eibarko armagileen lanari eusten eta bost kontinenteetara esportatzen.

Asociación Armera berrantolatua egin da eta sektore berriei ireki die atea, ehizarekin eta kirol-tiroarekin lotutako azpisektoreei.

Eskopetak egiten dituzten Eibarko enpresak paraleloan eta gama altuko erriflean espezializatu dira. Tradizioari lekukoa hartuta, esku-langintza eta akaberen perfektzioa oreka ezin hobean batu dituzte, teknikaren punta-puntako aurrerapenei esker. Nazioarteko merkatuetan

cambiantes demandas de los usuarios.

En un mundo en transformación en que los centros de producción migran a países de mano de obra barata, la industria armera ha sido capaz de mantener la manufactura eibarresa y exportarla a los cinco continentes.

Así, de la mano del propio sector, la Asociación Armera se reorganiza y da entrada a nuevos subsectores ligados a la caza y el tiro deportivo.

Las empresas eibarresas de escopeta se han especializado en paralela y rifle de alta gama, recogiendo el testigo de la tradición conjugando en equilibrio la artesanía y perfección



eskaera handia duten luxuzko armak egiten dituzte.

Aurrekargako armagintza merkatuaren buru dago mundu osoan, eta produkzioan esparru berriak ireki ditu: doitasuneko erriflea eta kanoien fabrikazioa.

Kartutxo-fabrikatzaileek industria berrantolatu zuten, instalazioak modernizatu eta kalitatea lehentasun bihurtu. Bertako kartutxogintza-aren ia % 90 esportatu egiten da eta produkzioa erreferente da mundu osoan.

Karabinagileek ere produktua hobetu dute, eta egiten dituzten armen arrakastak gako bi ditu: kainoien kalitatea eta produktua etengabe berritzea.

en los acabados con los últimos avances de la técnica. Fabrican armas de lujo muy demandadas en los mercados internacionales.

El subsector de la avanguardia se ha posicionado a la cabeza a nivel mundial y ha diversificado la producción hacia el rifle de precisión y la fabricación de cañones.

Los fabricantes de cartuchería de caza se reestructuraron, modernizaron sus instalaciones e hicieron de la calidad una prioridad, convirtiéndose en un referente a nivel mundial con unos niveles de exportación que superan el 90%.

Los fabricantes de carabinas de aire comprimido han perfeccionado su producto, la clave del éxito radica en



Foto cedida por BERETTA

Asociación Armeran prestigio handiko sektoreak sartu dira: nazioartean izen handia duten arma eta ekipazio-banatzailleak, aiztoak, arropa, oinetakoak eta tirorako platerrak egiten dituzten industriak.

la calidad de los cañones y en la capacidad de innovación continua del producto.

Se incorporan a la Asociación Armera distribuidores de armas y equipamiento de las marcas más prestigiosas a nivel internacional, fabricantes de cuchillería, ropa, calzado y platos para la práctica del tiro.

La industria crea e innova y se adentra en las nuevas tecnologías aplica-




Foto cedida por RADETEC

Industriak sortu eta berritu egiten du, eta armetan aplikatzen diren teknologia berrietan sakontzen du. Elektronika armen osagarri bihurtu da eta kartutxoetan polimero bereziak erabiltzen dira egun. Laburbilduz, armagintza modernoa da XXI. mendeko armagintza eta uneoro egokitzen da testuingurura.

das a las armas, la electrónica como componente de las armas, polímeros especiales se incorporan a la cartuchería. En definitiva, la industria armera del siglo XXI es moderna y en continua adaptación a un escenario también en transformación.

Marta Gómez
Gerente Asociación Armera



Dibujo realizado por VICENTE ALBERDI

Asociación Armerako kideak, azpisektoreka

Miembros actuales de la Asociación Armera por subsectores

Aurrekargako armak eta errifleak / Avancarga y rifle

Ardesa, S.A.

Dikar, S. Coop. Ltda. - BERGARA BARRELS

Oinetakoak, arropa, zorroak eta ehizerako eta tirorako ekipazioa

Calzado, ropa, fundas y equipamiento de caza y tiro en general

Calzados Fal, S.A. - CHIRUCA

Guarnicionería Roal, S.A.

Pielcu, S.L.

Suministros Evia, S.L. - HART

Aire konprimatuko karabinak

Carabina de aire comprimido

Carabinas Cometa, S.A.

Eibar Airgun Trading Company, S.L. - NORICA

Gamo Outdoor, S.L.U.

Osagaiak Componentes

Alfa Precision Casting, S.A.
Electro Crisol Metal, S.A. - ECRIMESA
Mimecrisa
Mim-Tech Alfa, S.L.U.

Aiztoak Cuchillería

Cuchillería Joker, S.L.
Manufacturas Muela, S.A.

Banatzaileak Distribuidores

Aguirre y Cía., S.A.
Armería A. Izquierdo, S.L.
Skyway Technology, S.A.

Elektronika Electrónica

Rade Tecnologías, S.L.

Poliziarentzako ekipazioa Equipamiento policial

Falken, S.A.
Guarnicionería Roal, S.A.
Larrañaga y Elorza, S.A. - ALCYON

Artisautzako eskopeta paraleloak Escopeta paralela artesana

Aguirre y Aranzabal, S.A. - AYA
Armas Garbi, S.A.
Armas Kemen, S.L.

Grulla Armas, S.L.
 La Armería de Madrid, S.L.
 Manufacturas Arrieta, S.L.
 Pedro Arrizabalaga Escopetas, S.L.

Gainjarritako eskopetak eta erdiautomatikoak Escopeta superpuesta y semiautomática

Armas Kemen, S.L.
 Beretta Benelli Ibérica, S.A. - BBI

Munizioa Munición

Armas y Cartuchos del Sur, S.L.
 Azor Ambiental, S.A.
 Cartuchos GB, S.A.
 Comercial de Armas y Municiones, S.A. - CARMUSA
 Extreme Polymer Research, S.L. - POLYCASE
 Maxam Outdoors, S.A.
 Trust Eibarrés, S.A.

Tirorako platerak Platos para el tiro

Corsivia, S.A.
 Jesús y Vicente Vázquez, S.L.

Itzulpena: Eibarko Udaleko Itzulpen Zerbitzua.

ARRATE FILATELDI ELKARTEAK, eskerrak eman nahi dizkie babesa emanaz lagundu duten guztiei.

La Asociación Filatélica Arrate quiere agradecer la colaboración de todos y cuantos han participado con su apoyo.

LAGUNTZAILEAK / COLABORAN



EIBARKO UDAL ARTXIBOA
ARCHIVO MUNICIPAL DE EIBAR



BABESLEAK PATROCINADORES



ANTOLATZAILEA ORGANIZA

